

# ilarrik eta bero-boladak hirian



Iratxe Rubio Benito del Valle - Amelia Benito del Valle Eskauriaza  
Marrazkiak: Lucía Bonilla







ilar*s*ikereta  
bero-boladak hirian

1. edizioa: 2023

Argitaratzailea: Mareira Bizi S. Coop. Galega

Egileak eta afiliazioak:

- Iratxe Rubio Benito del Valle; Mareira Bizi S. Coop. Galega eta Basque Centre for Climate Change – Klima Aldaketa Ikergai (BC3)
- Amelia Benito del Valle Eskauriaza; Bilboko Hezkuntza Fakultatea (Euskal Herriko Unibertsitatea – UPV/EHU)

Ilustrazioak: Lucía Bonilla

Testu-orratzaileak: Jon Martínez Mardaras (Hezkuntza, Eusko Jaurlaritza), Marta Olazabal (BC3), María Ruiz de Gopegui (BC3), Nerea Ortiz Olarra (BC3), Ainara Fernandez Murelaga (BC3)

Inprenta: Sixpress, Vigo

Lege Gordailua: LG BI 00451-2023

ISBN: 978-84-09-50110-6

Liburu honek María de Maeztu excellence 2023–2027 egiaztagiria du (erref. CEX2021-001201-M), eta MCIN/AEI/10.13039/501100011033/ finantzaketa jaso du; baita Eusko Jaurlaritzaren finantzaketa ere, BERC 2022–2025 programaren bidez.

© BC3 Basque Centre for Climate Change – Klima Aldaketa Ikergai

**bc<sup>3</sup>** | BASQUE CENTRE  
FOR CLIMATE CHANGE  
Klima Aldaketa Ikergai  
**Sustainability, that's it!**

**EXCELENCIA  
MARÍA  
DE MAEZTU**  
2023 - 2027



# ilarrik eta bero-boladak hirian



Iratxe Rubio Benito del Valle – Amelia Benito del Valle Eskauriaza  
Marrazkiak: Lucía Bonilla

Kaixo! Ilargiker naiz, galdera berriei erantzunak bilatzen dizkien ikertzailea. Mari, nire amama, Ama Lurraren burua da, eta Basajaun, nire laguna, naturaren zaintzailea. Nik natura aztertzen dut eta babesten saiatzen naiz. Gu ere, Ama Lurraren kide gara, jateko, edateko eta bizitzeko behar duguna ematen baitigu.

Gainera, botere magikoak ditut: nire itxura alda dezaket, baita objektuak mugitu eta nahi dudanean edozein lekutara bidaiatu ere.


BC3 Basque Centre for Climate Change - Klima Aldaketa Ikergain zentroan lan egiten dut. Ikerketa-zentro honetan, ni bezalako ikertzaile gehiago daude klima-aldaketa aztertzen. Ba al dakizu zer egin dezakegun hirian gero eta bero handiagoari aurre egiteko? Ipuin honetan deskubrituko dugu!





Uda iristen ari da. Lehen Hezkuntzako irakasle bat eta bere ikasleak Bilbon daude txangoan.

—Hau beroa!






Bero handia egiten duenez, irakasleak aterpe fresko bat bilatzea erabaki du.

Egun hauetan ezin da bizitza normala egin.

Horregatik, irakaslea eta ikasleak Azkuna Zentrora abiatuko dira kaleko zuhaitzen itzalak aprobetxatuz.

# kusü



Azkuna Zentrora sartzean, ume bat korrika egiten hasi da Ilargikerren izena oihukatuz.

—Ilargiker, Ilargiker, kalean bero gehiegi dagoenez, hona etorri gara. Eta zu? Bero zara ere?

—Kaixo, bai, bero naiz! Bero-boladei buruzko hitzaldia ematera etorri naiz.





—Ah, hitz egitera etorri zara. Niri asko gustatzen zait hitz egitea! —dio neskato batek.

—Kar, kar, kar... Bada, hainbat egunez irauten duen muturreko beroaz hitz egin dut, hau da, bero-boladei buruz. Orain bizitzen ari garenaren modukoaz, sekulako beroa baitugu egun askotan zehar. Gero eta bero-bolada gehiago eta luzeagoak ditugu.



—Benetan, bero honekin ez dakit nora joan ikasleekin, Bilbon umeentzat bero-babeslekuak topatzea zaila da eta. Ez gaude behar bezain prest beroari aurre egiteko, edo berora egokitzeko.

—Kasualitatez, bihar alkatea bisitatuko dut hirian zer egin proposatzeko, hiria zuzentzen duen eta alda dezakeen pertsona baita. Nirekin etorriko al zarete?


—Ezin gara bero honekin joan —azpimarratu du irakasleak.





—Ideia bikaina daukat. Nire intsignia magikoa denez, barrura sartuko zarete. Horrela, nirekin etorriko zarete joango naizen leku guztietara. Egon lasai, intsignian tenperatura oso egokia da.

—Bai, bai, zein ondo! Intsigniara sartuko gara eta horrela den-dena ikusiko dugu! —diote ikasleek pozik.





Hurrengo egunean, udaletxean:

—Egun on, alkate andrea.

—Egun on! —umeen ahotsak intsigniatik.

—Hiria berorako hobeto prestatuta egon dadin zer egingo dugun proposatzera etorri gara. Naturaren bidez neurri batzuk bilatuko ditugu, eta, horretarako, zuhaitz, ur eta harri batekin hitz egingo dugu. Alkate andrea, zatoz gurekin!





Ilargiker beldar bilakatu da, zuhaitzekin hitz egiteko. Hiriko zuhaitz baten bila joan da eta berarekin berbetan hasi da:

—Kaixo! Zein hosto handi eta politak dituzun!

—Jakina, horrela itzal handiagoa ematen dut.

—Zuhaitz gehiago behar ditugu Bilbon beroari aurre egiteko. Zuhaitz gehiago lortzen lagunduko zeniguke?

—Bai, noski! Espaloi zabalak eta berdegune gehiago ematen badizkidazue, biderkatu ahal izango naiz eta zuhaitz gehiago sortu!





Zuhaitzarekin hitz egin ondoren, Ilargiker txori bilakatu da, hiriko iturri baten urarekin hitz egiteko.


—Kaixo! Zenbat mugitzen zaren!

—Jakina Ilargiker, horrela airea freskatu egiten dut.

—Bilbon ur-elementu gehiago behar ditugu beroari aurre egiteko, lagunduko al diguzu?

—Bai, noski! Ur-elementu gehiago non jarri bilatuko dugu alkatearekin!

—ETA GUREKIN! ETA GUREKIN! —umeek.






Jarraian, Ilargiker harri bilakatu da, aurrean duen eraikinaren harri batekin hitz egiteko.

—Kaixo! Zein fresko zauden!

—Jakina, oso berezia naiz. Beroa pilatu beharrean kaleratzeko eraldatua nago. Horri esker, freskoago mantentzen naiz.

—Eraikinak zu bezalako harriekin eraberritu eta sortu behar ditugu beroari aurre egiteko, lagunduko al diguzu?

—Bai, noski, ni bezalako harriei deituko diegu eraikinetarako!






Alkatea liluratuta dago eta bere agenda handian beroari aurre egiteko ideiak idatzi ditu; denak natura eta bere osagaien ezaugarriekin lotuta.

—Orain praktikan jarriko ditugu! —konpromisoa hartzen du. Naturaren elementuen bisitak amaitu dira. Ilargikerrek, alkateak, irakasleak eta ikasleak agur esan diote elkarri. Denak intsigniatik irten dira.

—Musu pilo bat Ilargiker! Laster arte!







Liburu hau paper birziklatuan inprimatu da

**bc<sup>3</sup>**

BASQUE CENTRE  
FOR CLIMATE CHANGE  
Klima Aldaketa Ikergai  
**Sustainability, that's it!**










# Hiriko bero-boladei aurre egiteko neurriak ezagutzeko ipuin bat

Ilargiker *BC3 Basque Centre for Climate Change - Klima Aldaketa Ikergai* izeneko zentroko ikertzailea da. Lehen Hezkuntzako gelakideekin topo egin du Bilboko hirian. Haiekin eta alkatearekin hirian gero eta bero handiagoari aurre egiteko zer egin dezakegun ikusiko dugu.



**bc<sup>3</sup>**

BASQUE CENTRE  
FOR CLIMATE CHANGE  
Klima Aldaketa Ikergai



9 788409 501106